

BALDINTZAK

Udaleko langileek parte hartzeko
Euskarabidearen ikastaroetan

CONDICIONES

de participación del personal municipal
en los cursos de Euskarabidea

PARTE HARTZEKO ERAK

Iruñeko Udalaren zerbitzura aritzen diren langileek eskura dute Euskarabideak urtean bitan, udaberriko eta udazkeneko deialdien bidez, euskara ikasi eta hobetzeko eskaintzen dituen ikastaroetan parte hartzeko aukera.

Iruñeko Udaleko langileek bi modutan parte hartzen ahal dute ikastaro horietan:

1.- Beraien aisialdian:

Hala eginez gero, izena eman behar dute Euskarabidearen webgunean Euskarabideak horretarako zabaldutako epeetan, betiere adierazita ikastaroa UDAL-BAIMENIK GABE egin behar dutela.

2.- Lan-ordutegian:

UDALAREN BAIMENAREKIN eta ikastaroetako konpentsazioei buruzko indarreko araudiarekin bat.

Lan-ordutegian egin nahi izanez gero, langileek baimena eskatzeko eskabidea bidali behar dute -kasuan kasuko langilea zer udal-alorretakoa izan eta bertako idazkari teknikoak sinatuta- Iruñeko Udaleko Euskara Zerbitzura Udalak ezarriko dituen epeetan.

EUSKARA ZERBITZUA ETA GIZA BALIABIDEETAKO DEPARTAMENTUA ARDURATUKO DIRA ESKAEREN TRAMITAZIOAZ.

IKASTAROAK EGITEKO BAIMENAK EDO UKAPENAK EUSKARA ZERBITZUAK ETA GIZA BALIABIDEETAKO DEPARTAMENTUAK JAKINARAZIKO DIETE HALA INTERESDUNEI NOLA EUSKARABIDEARI.

FORMAS DE PARTICIPACIÓN

El personal al servicio del Ayuntamiento de Pamplona puede acceder a los cursos de aprendizaje y perfeccionamiento de euskera que oferta Euskarabidea mediante sus dos convocatorias anuales en primavera y en otoño.

Las empleadas/os del Ayuntamiento de Pamplona pueden participar en dichos cursos de dos maneras:

1.- En su tiempo libre:

En este caso, tienen que inscribirse en la web de Euskarabidea en los plazos establecidos para hacerlo, manifestando que van a realizar el curso SIN AUTORIZACIÓN MUNICIPAL.

2.- En horario de trabajo:

CON AUTORIZACIÓN MUNICIPAL, y conforme a la normativa vigente sobre compensaciones de cursos.

Para realizar el curso en horario de trabajo, el personal debe enviar la solicitud de autorización -firmada por el o la secretaria técnica del área municipal a la que pertenece- al Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Pamplona, en los plazos que el Ayuntamiento habilite para ello.

EL SERVICIO DE EUSKERA Y EL DEPARTAMENTO DE RECURSOS HUMANOS SE ENCARGARÁN DE LA TRAMITACIÓN DE LAS SOLICITUDES.

EL SERVICIO DE EUSKERA Y EL DEPARTAMENTO DE RECURSOS HUMANOS COMUNICARÁN LA AUTORIZACIÓN O DENEGACIÓN DE LOS CURSOS TANTO A LAS PERSONAS INTERESADAS COMO A EUSKARABIDEA.

BALDINTZAK

Udaleko langileek parte hartzeko
Euskarabidearen ikastaroetan

EUSKARABIDEAREN MAIATZAREN 12KO 25E/2020 EBAZPENAREKIN BAT, IRUÑEKO UDALAK BAIMENDUTAKO LANGILEEK EZ DUTE IZENA EMAN BEHAR EUSKARABIDEAREN IKASTAROETAN HORRETARAKO EZARRITAKO EPEETAN. HORREN ORDEZ, EUSKARA ZERBITZUAK UDALAK BAIMENDUTAKO PERTSONEN ZERRENTA BIDLARIK DIO EUSKARABIDEARI, BERTAN ZEHAZTUTA BAIMENDUTAKO IKASTAROAK, ORDUTEGIAK ETA MAILAK, ETA, ZERRENTAREKIN BATERA, BAIMENDUTAKO PERTSONA GUZTIEN UDAL-BAIMENAREN BANAKAKO AGIRIAK ERE.

Baimenak Planean ezarritako irizpideekin bat emanen dira, edo ukatuko, eta ukapenak era egokian arrazoituko dira.

MAILA-ERREPIKAPENAK

Udalak baimenduko du maila edo azpimaila bereko ikastaro trinko edo estentsibo bat baino gehiago egitea (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren mailak: A1, A2, B1, B2 eta C1), dela urte berean, dela ondoz ondoko urteetan, sailkapen honen arabera:

CONDICIONES

de participación del personal municipal
en los cursos de Euskarabidea

CONFORME A LA RESOLUCIÓN 25E/2020 DE 12 DE MAYO DE EUSKARABIDEA, EL PERSONAL AUTORIZADO POR EL AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA QUEDA EXIMIDO DE INSCRIBIRSE EN LOS CURSOS DE EUSKARABIDEA EN LOS PLAZOS QUE SE ESTABLEZCAN. EN LUGAR DE ELLO, EL SERVICIO DE EUSKERA REMITIRÁ A EUSKARABIDEA LA RELACIÓN DE LAS PERSONAS AUTORIZADAS POR EL AYUNTAMIENTO, CON ESPECIFICACIÓN DE CURSOS, HORARIOS Y NIVELES QUE SE AUTORIZAN, ASÍ COMO LOS DOCUMENTOS INDIVIDUALES DE AUTORIZACIÓN MUNICIPAL DE CADA UNA DE LAS PERSONAS AUTORIZADAS.

Las autorizaciones se concederán o denegarán conforme a los criterios establecidos en el Plan, y las denegaciones se motivarán adecuadamente.

REPETICIÓN DE NIVELES

El Ayuntamiento autorizará la realización de más de un curso de un mismo nivel o subnivel (niveles del Marco Común Europeo de Referencia de las Lenguas: A1, A2, B1, B2 y C1), en el mismo año o en años consecutivos, de acuerdo con la siguiente tipificación:

MAILAK ETA AZPIMAILAK – NIVELES Y SUBNIVELES	MOTAK – MODALIDADES	ZENBAT ALDITAN GEHIENEZ – N° MÁXIMO DE VECES
A1 A2	Ikastaro estentsiboak – Cursos extensivos	2
B1 B2.1	Ikastaro estentsiboak – Cursos extensivos	4
	Ikastaro trinkoak – Cursos intensivos	2
B2.2 C1	Ikastaro estentsiboak – Cursos extensivos	5
	Ikastaro trinkoak – Cursos intensivos	2

BALDINTZAK

Udaleko langileek parte hartzeko
Euskarabidearen ikastaroetan

Behin gehieneko errepikapen-kopurua agortuta, gabealdi bat ezarriko da, bi deialdi (ikasturte bat) hartuko dituen, maila bereko ikastaro estentsibo edo trinko bat egiteko aukera izan arte.

Aldi hori igaro bitartean, langileak udal-baimena eskatu ahalko du autoikaskuntza tutorizatuan izena emateko, edo zuzenean izena eman, onlineko autoikaskuntza librean (tutoretzarik gabe).

Autoikaskuntza librearen eta tutorizatuaren kasuan, ez dago mugarik maila bereko ikastaroak egiteko.

Ikastaroak egiteko baldintzak aldatzen ahalko dira baldin eta sartzen badira Udalaren interesei erantzute aldera abian jar daitezkeen birziklatze-planetan.

LEHENTASUN-IRIZPIDEAK

1) Langileak

Langile hauek lehentasuna izanen dute:

- Euskara eta gaztelaniazko ele biko eskakizuna ezarrita duten lanpostuetan ari direnak;
- Euskara ikasteko ibilbide iraunkor, koherente eta oso batean ari direnak, edo halako bati heltzeko prest daudenak;
- Euskara ikasteko prozesu aurreratu batean ari direnak (goiko mailetan).

CONDICIONES

de participación del personal municipal
en los cursos de Euskarabidea

Una vez agotado el nº máximo de repeticiones, se establecerá un periodo de carencia de dos convocatorias (un curso académico), antes de poder realizar un curso extensivo o intensivo del mismo nivel.

Durante ese tiempo el empleado o empleada podrá solicitar autorización municipal para inscribirse en autoaprendizaje tutorizado, o inscribirse directamente en autoaprendizaje online libre (sin tutorías).

En autoaprendizaje libre y tutorizado no existen limitaciones para la realización de cursos de un mismo nivel.

Las condiciones para la realización de cursos podrán ser modificadas en el caso de planes de reciclaje que se puedan implantar para responder a los intereses municipales.

CRITERIOS DE PRIORIDAD

1) Personal

Tendrán prioridad los y las trabajadoras que:

- Estén ocupando puestos de trabajo con perfil bilingüe euskera-castellano;
- Estén llevando a cabo, o se comprometan a realizar, un itinerario de aprendizaje continuado, coherente y completo;
- Se encuentren en un proceso avanzado de aprendizaje de euskera (niveles superiores).

BALDINTZAK

Udaleko langileek parte hartzeko
Euskarabidearen ikastaroetan

2) Udalaren beharrak

Hona lehentasunak euskara ikasteko edo euskarazko prestakuntza emateko orduan, Udalaren beharren arabera:

Euskara ikasteko:

1.- Herritarrei zuzeneko arreta ematekoak izan eta euskara-gaztelaniazko ele biko hizkuntza-eskakizuna duten plazak;

2.- Oro har, euskara-gaztelaniazko ele biko hizkuntza-eskakizuna duten plazak;

3.- Herritarrei zuzeneko arreta emateko plazak, nahiz eta ez eduki hizkuntza-eskakizunik;

4.- Gainerako plazak.

Euskarazko hobekuntza teknikoko ikastaroak:

Eginkizunak bi hizkuntzetan garatu behar dituzten langileek betetzen dituzten plazak, euskara-gaztelaniazko ele biko hizkuntza-eskakizuna edukita zein hori eduki gabe.

3) Ordutegiak: ordutegi hauek lehenetsiko dira:

a) Lanpostuetako eginkizunak behar bezala egitea gutxien oztopatzen dituztenak.

b) Konpentsatzeko errazena diren ordutegiak.

Zerbitzu eta lantokietako arduradunek eta Udaleko alorretako idazkari teknikoek irizpide horiek hartuko dituzte kontuan aztertu behar dutenean –eta beren sinadurarekin berretsi– posible ote den ematea eskatzen diren baimenak.

CONDICIONES

de participación del personal municipal
en los cursos de Euskarabidea

2) Necesidades municipales

Estas son las prioridades para ofrecer formación de o en euskera conforme a las necesidades municipales:

En cuanto al aprendizaje de euskera:

1.- Plazas de atención directa a la ciudadanía que cuenten con perfil lingüístico bilingüe euskera-castellano;

2.- Plazas con perfil lingüístico bilingüe euskera-castellano en general;

3.- Plazas de atención directa a la ciudadanía aunque no cuenten con perfil lingüístico;

4.- Resto de plazas.

Cursos de perfeccionamiento técnico en euskera:

Aquellas plazas que, con o sin perfil bilingüe euskera-castellano, estén ocupadas por personal que debe desarrollar sus funciones en ambas lenguas.

3) Horarios: se dará prioridad a los horarios que:

a) Menos afecten al normal desarrollo de las funciones de los puestos de trabajo.

b) Los horarios más fácilmente compensables.

Las personas responsables de cada servicio o centro de trabajo y las secretarías técnicas de las áreas municipales tendrán en cuenta dichos criterios a la hora de analizar – y ratificar con su firma– si es posible conceder los permisos solicitados.

BALDINTZAK

Udaleko langileek parte hartzeko
Euskarabidearen ikastaroetan

c) Lanaldiaren hasieran edo bukaeran egitekoak diren ikastaroak.

Lanaldiaren erdian egitekoak diren ikastaroak (astean bi egunetan egiten direnak) bakarrik lehenetsiko dira baldin eta lanaldiaren barnean ez badira egiten (arratsaldekoak badira goizeko lanaldia dutenendako, eta goizekoak badira, arratsaldeko lanaldia dutenendako).

ONTZAT EMANEN DIRA ORDUTEGIEI BURUZKO AKORDIO PARTIKULARRAK ZERBITZUETAKO ARDURADUNEN ETA EUSKARA-IKASTAROETAN PARTE HARTU NAHI DUTEN LANGILEEN ARTEAN, BALDIN ETA EZ BADITUZTE KALTETZEN ZERBITZUAK EMATEA BERA EDOTA UDALAREN FUNTZIONAMENDU OROKORRA, ETA BETETZEN BADITUZTE KONPENTSAZIOEI BURUZ EZARRITAKO ARAUAK.

ADOSTUTAKO BALDINTZAK JAKINARAZIKO ZAIZKIE KASUAN KASUKO UDAL ALORREKO IDAZKARI TEKNIKOARI, GIZA BALIABIDEETAKO DEPARTAMENTUARI ETA UDALAREN EUSKARA ZERBITZUARI.

IKASTAROAK ETA KONPENTSAZIOAK

Lan-ordutegian baimendutako ikastaroen konpentsazioak Eskaintza honetan eta ***Iruñeko Udalaren zerbitzura ari diren langileendako euskara ikasteko eta hobetzeko Planean*** ezarritakoaren arabera egiten dira, eta, modu subsidiarioan, 195/1993 Foru Dekretuan eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak maiatzaren 17an emandako 1311/2010 Ebazpenean xedatutakoarekin bat.

CONDICIONES

de participación del personal municipal
en los cursos de Euskarabidea

c) Los cursos cuyo horario coincide con el inicio o final de la jornada laboral.

Los cursos que se desarrollan en medio de la jornada laboral (extensivos de dos días por semana), solo se priorizarán en el caso de que no coincidan con la jornada laboral (cursos vespertinos en caso de jornada de mañana, y matutinos, en caso de jornada de tarde).

SE ADMITIRÁN ACUERDOS PARTICULARES SOBRE HORARIOS ENTRE RESPONSABLES DE LOS SERVICIOS Y TRABAJADORES O TRABAJADORAS QUE DESEEN PARTICIPAR EN LOS CURSOS, SIEMPRE QUE NO AFECTEN A LA PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS NI AL FUNCIONAMIENTO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO, Y CUMPLAN LAS NORMAS ESTABLECIDAS SOBRE LAS COMPENSACIONES.

LAS CONDICIONES QUE SE ACUERDEN DEBERÁN SER COMUNICADAS A LA SECRETARÍA TÉCNICA DEL ÁREA INVOLUCRADA, AL DEPARTAMENTO DE RECURSOS HUMANOS Y AL SERVICIO DE EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO.

CURSOS Y COMPENSACIONES

Las compensaciones por cursos realizados en horario laboral se realizarán conforme a lo previsto en la presente Oferta y en el ***Plan de aprendizaje y perfeccionamiento del euskera para el personal al servicio del Ayuntamiento de Pamplona*** y, subsidiariamente, conforme a lo establecido en el Decreto Foral 195/1993 y la Resolución 1311/2010, de 17 de mayo del Director General de Función Pública.

BALDINTZAK

Udaleko langileek parte hartzeko
Euskarabidearen ikastaroetan

CONDICIONES

de participación del personal municipal
en los cursos de Euskarabidea

KONPENTSAZIOAK – COMPENSACIONES

- ESTENTSIBOAK

ORDU-KONPENTSAZIOA: Orduen erdia lanorduen kontura, eta beste erdia langilearen denboraren kontura.

- TRINKOAK

ORDU-KONPENTSAZIOA:

- Lanorduen kontura.

- AUTOIKASKUNTZA TUTORIZATUA

ORDU-KONPENTSAZIOA:

- Mintza-saioen denbora, lanorduen kontura.
- Onlineko lana, langile bakoitzak bere kontura.

- AUTOIKASKUNTZA LIBREA

ORDU-KONPENTSAZIOA:

- Langile bakoitzak bere kontura.

- IKASTARO ESPEZIFIKOAK

ORDU-KONPENTSAZIOA:

- Lanorduen kontura, ordezkapenik gabe.

OHARRA: Ez dute konpentsaziorik edukiko tituluak (B2 eta C1) lortzeko azterketak nola egiten diren ikastea helburu duten ikastaroak.

- JOAN-ETORRIAK:

Ikaskuntza-modalitate guztietan –salbu ikastaro trinkoetan eta autoikaskuntza librean–, euskaltegia joateko edota handik itzultzeko erabilitako denboraren erdia lanorduen kontura konpentsatuko da, eta beste erdia langilearen denboraren kontura joanen da. Horrela kalkulaturako lanorduen kontura konpentsatu beharreko denbora, betiere, 30 minutu izanen da gehienez.

- EXTENSIVOS

COMPENSACIÓN HORARIA: La mitad con cargo al tiempo de trabajo y la otra mitad a cargo del trabajador/a.

- INTENSIVOS

COMPENSACIÓN HORARIA:

- Con cargo al tiempo de trabajo.

- AUTOAPRENDIZAJE TUTORIZADO

COMPENSACIÓN HORARIA:

- Sesiones de conversación, con cargo al tiempo de trabajo.
- Trabajo online, a cargo de cada empleada/o.

- AUTOAPRENDIZAJE LIBRE

COMPENSACIÓN HORARIA:

- A cargo de cada empleada/o.

- CURSOS ESPECÍFICOS

COMPENSACIÓN HORARIA:

- Con cargo al tiempo de trabajo, sin sustitución.

NOTA: No tendrán compensación los cursos cuyo objetivo es el aprendizaje sobre cómo realizar exámenes para lograr títulos (B2 y C1).

- DESPLAZAMIENTOS:

En todas las modalidades de aprendizaje –salvo en los cursos intensivos y el autoaprendizaje libre–, la mitad del tiempo invertido en los desplazamientos al centro de estudios se compensará con cargo al tiempo de trabajo, y la otra mitad, con cargo al tiempo del trabajador/a. El tiempo a compensar con cargo al tiempo de trabajo, así calculado, será como máximo de 30 minutos.

IKASTARO TRINKOETARAKO BALDINTZA BEREZIAK

Ikastaro trinkoen modalitatean parte hartzeko, nahitaezkoa da honako baldintza hauek betetzea (biak):

CONDICIONES ESPECIALES PARA CURSOS INTENSIVOS

Para tomar parte en la modalidad de cursos intensivos, es indispensable cumplir las siguientes condiciones (ambas):

BALDINTZAK

Udaleko langileek parte hartzeko
Euskarabidearen ikastaroetan

a) Udal-langilea izatea, kontratu finkokoa edo iraupen luzekoa.

b) Egiaztatuta edukitzea euskarazko A2 maila gaingiduta dutela.

LEHENTASUNA EMANEN ZAIE, IKASTARO TRINKOAK EGITEKO ORDUAN, EGOERA HAUETAN DAUDEN LANGILEEI:

- ikaskuntza-prozesu jarraitu batean parte hartzen ari diren eta A2 maila gaingiduta duten langileei;

- Udalak euskara jakitea zer lanpostutan jo interesekotzat eta halako lanpostuetan ari direnei;

- B1 maila gaingiduta eduki eta herritarrei zuzeneko arreta eman behar dieten langileei;

- betetzen ari diren lanpostuaren ezaugarriak direla medio euskarazko hizkuntza-birziklatzeko programa bereziren batean sartzen direnei.

CONDICIONES

de participación del personal municipal
en los cursos de Euskarabidea

a) Ser empleado/a municipal con contrato fijo o de larga duración.

b) Tener acreditado que se ha superado el nivel A2 de euskera.

SE DARÁ PRIORIDAD PARA LA REALIZACIÓN DE CURSOS INTENSIVOS A EMPLEADAS/OS QUE:

- estén participando en un proceso de aprendizaje continuado y tengan superado el nivel A2;

- ocupen puestos de trabajo en los que el conocimiento de euskera sea de especial interés para el Ayuntamiento;

- tengan superado el nivel B1 y presten servicio en puestos de atención directa a la ciudadanía;

- sean incluidos en un programa específico de reciclaje lingüístico en euskera debido a las características del puesto de trabajo que ocupan.

MAILA NEURTZEKO PROBAK

Euskarabidearen eskaintzan **lehen aldiz** parte hartu nahi duten udal-langileek Euskarabideak antolatzen duen **mailaketa-proba** egin behar dute nahitaez, edo bestela azken lau urteetan eskuratua izan behar duten maila-egiaztagiri bat aurkeztu.

Halaber, proba hori egin behar dute azken bi ikasturteetan Euskarabidearen euskaltegian ikasi ez duten guztiek, baldin eta ez badute aurkezten maila-egiaztagiririk.

EGIAZTAGIRIRIK EDUKI EZ ETA MAILAKETA-PROBA EZ EGITEAK PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA GALTZEA EKARRIKO DU.

Mailaketa-probak Euskarabidearen euskaltegian egiten dira, Euskarabideak deialdi bakoitzean zehazten dituen data eta orduetan.

PRUEBAS DE NIVEL

Todos los empleados/as municipales que deseen tomar parte en la oferta de Euskarabidea **por primera vez** deben realizar, obligatoriamente, la **prueba de nivel** que organiza dicha entidad, o presentar un documento de acreditación de nivel obtenido en los últimos cuatro años.

Igualmente, deben realizarla todas las personas que no han acudido al euskaltegi de Euskarabidea en los dos últimos cursos, salvo que presenten documento acreditativo de nivel.

NO REALIZAR LA PRUEBA DE NIVEL SIN DISPONER DE DOCUMENTO ACREDITATIVO SUPONDRÁ LA PÉRDIDA DEL DERECHO A PARTICIPAR EN EL PROGRAMA.

Las pruebas de nivel se realizan en el euskaltegi de Euskarabidea, en las fechas y horas que se establecen en cada convocatoria.

BALDINTZAK

Udaleko langileek parte hartzeko
Euskarabidearen ikastaroetan

CONDICIONES

de participación del personal municipal
en los cursos de Euskarabidea

BAIMENEN KUDEAKETA ETA IKASTAROETAN PARTE-HARTZEAREN KONTROLA

Euskara Zerbitzuak eta Giza Baliabideetako Departamentuak kudeatzen dituzte baimenak eta ikastaroen eta haietan parte hartzen duten langileen kontrola. Halaber, beraiek arduratzen dira ikastaro horiek egin bitartean gertatzen diren aldaketez.

ALDAKETAK IKASTURTEAN ZEHAR

Egin beharreko aldaketa guztiak behar bezala justifikatu behar dira, eta egoki dokumentatu:

1) Ikastaroetan baja egin nahi dutenek Euskara Zerbitzuari jakinarazi behar diote hori, eta erabakia modu egokian justifikatu.

Hala egiten ez badute, inguruabar hori kontuan hartuko da, hurrengo deialdietarako baimenak emateko orduan.

2) Baldin eta udal-zerbitzu batek eten egin behar badu udal-langile baten partaidetza Euskara Ikasteko Planean, hori jakinarazi behar die Plana kudeatzen dutenei, eta idazki baten bidez justifikatu beharko dute, bertan adierazita etenaren arrazoi zehatzak.

Baldin eta udal-langile bati baimena eteten bazaio zerbitzu-beharrak eraginda, beste modalitate batzuk eskainiko zaizkio ahal den neurrian, zerbitzuarekin bateragarriak.

GESTIÓN DE AUTORIZACIONES Y CONTROL DE PARTICIPACIÓN EN LOS CURSOS

El Servicio de Euskera y el Departamento de Recursos Humanos gestionan las autorizaciones y el control de los cursos y del personal que participa en ellos. Se encargan así mismo de resolver las modificaciones que surgen durante la realización de los cursos.

MODIFICACIONES A LO LARGO DEL CURSO

Todas las modificaciones que se realicen deben estar convenientemente justificadas y documentadas:

1) Quienes deseen darse de baja en los cursos deben comunicarlo al Servicio de Euskera, y justificar convenientemente su decisión.

De no hacerlo así, dicha circunstancia será tenida en cuenta a la hora de la concesión de autorizaciones para futuras convocatorias.

2) Los servicios municipales que vayan a suspender la participación de un empleado o empleada en el Plan de Aprendizaje deben comunicarlo a quienes gestionan el Plan, y justificarlo mediante documento escrito donde figurarán los motivos concretos de la suspensión.

Al personal municipal que sufra una suspensión de autorización por necesidades del servicio se le ofertarán, en la medida de lo posible, otras modalidades compatibles con dicho servicio.

BALDINTZAK

Udaleko langileek parte hartzeko
Euskarabidearen ikastaroetan

CONDICIONES

de participación del personal municipal
en los cursos de Euskarabidea

IKASTAROETARA EZ JOATEA

Eskoletara justifikatu gabe ez joatea
zehatu eginen da, eta kontuan hartuko da
etorkizunean baimenak ematerakoan.

INASISTENCIA A LOS CURSOS

Las inasistencias injustificadas serán
penalizadas, y tenidas en cuenta a la hora de
conceder futuras autorizaciones.

ARGIBIDE GEHIAGO HEMEN:

PARA MÁS INFORMACIÓN:

[IRUÑEKO UDALAREN ZERBITZURA ARI DIREN LANGILEENDAKO EUSKARA IKASTEKO ETA HOBETZEKO PLANA – PLAN DE
APRENDIZAJE Y PERFECCIONAMIENTO DEL EUSKERA PARA EL PERSONAL AL SERVICIO DEL AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA
\(2024-2028\)](#)